

Txillardegi

Indioen arimak salbatzera

Espainolek "Amerikak deskubritzean" 1492an, munduak ezagutu duen genozidiorik handienari eman zitzaion hasiera. Aste hauetan argitara berri den *Ancient Americans* liburukoteak, Charles Mannen lumaz, gogorazi duenez.

Espainolak 1492an La Española bataiatutako Cuba Uhartera iriste beretik beren "politika kolonizatzailea" ren oinarriak ipini zituzten. Eta hauen instituzio nagusizat La Encomienda de Indios izenekoa legez-tatu zuten.

Beronen arabera "bi belaunaldiez" -50 urtez, eman dezagun- "encomienda" delakoak mugarik gabe ustiatzeko eskubidea aitortu zitzairen espainiar konkistatzaileei.

Zenbat hektarea, zenbat kilometro karratu? Erregularik ez. Askotan eskualde zabal zabalak bertakoei lapurtu, garaitutako indioak esklabu bihurtu eta... ¡Adelante los cruzados de Cristo!

Bi belaunaldien epe hori gainera, berehala luzatu zen: hiru, lau belaunaldietara -100 urtez eman dezagun-. Honela hozitu zen Espainiako Erreinuak, eta azkar sendotu, urte gutxitan aberastekotan Ameriketara joateko tema iraunkorra.


Garaia hartu behar dugu kontuan: Fernando eta Isabel "katolikoak" konkista historikoena zen ordukoa, hain zuzen ere.

Granadako Erresuma musulmanaren konkista ere urte berean burutu zen (1492ko urtarrilean). Eta handik hogeiterra gure Nafarroarena, dakigun bide "demokratikoaz".

Mamitua zen ezpataz eta sarraskiaz "La España en que nunca se ponía el sol" ospetsua. Espainolak XVI. mendeko yankeeak bihurturik, zapal dutako eta ukatutako herriak zeuzkaten nonahi. Nafarroan, hasteko. Baina, Europatik irten gabe, Sizilian, Sardinian, Flandrian...

Benetan da ikaragarria Espainiak lurralde haiek konkistatzeko erabili zuen aitzakia merke eta lotsagaldua, "Indioen arimak salbatzera" joan zirela errepikatzen baitzuten. Artean, gupidarik gabe, indioen urrea tonaka lapurtzen zutelarik.

Hasieratik beretik (1497-VII-22) erlijioaren trikimailua erabili zuen Madrilek. Indioak "alfe-



RUBÉN PLAZA

rak" zirela sinestarazi zuen eta, hortaz, "gogortxo" jokatu behar izaten zuela bazueta. Lurralde haiek landu gabe uztea zinez deitoragarria zelako.

Hona hitzez hitz ziotena: 'Mantenuaren zigorra' zeritzona ezarri zitzairen indioei; alegia, konkistatzaileen mantenuerako lurralde landu beharra... lur gizen haiek beren elkor hartan ez uzteko. Eta, horretara, indioak nekazari eta langile bihurtu ziren".

Isabel La Catolicaren testamentuan, esate baterako, honela azaldu zen egia ofiziala: "Indietako baketzearen helburu nagusia biztanleon kristautzean zetzan, eta ez beste ezertan".

Indioen esplotazioarekin batera "katekesiaren beharra" azpimarratzen zen: "Ameriketako lurralde inoren eskutan jartzeko baldintza garbia eta erabakiorra hau zen: indioen kristau katekesia bermatzea".

Jokabide bikoitz maltzurra ok eginik, Bartolomé de las Casas dominikarra altxatu zen. Eta, hamaika bidaiak lantsu burutuz, 1492 urtean hil zen arte, nekagaitz aritu zen indioak beren infernu kolonialetik jaregiten.

"Voluntad de Imperio" daukaten espainiar eskuindarrek, hala ere, oso begi txarrez ikusten dute Bartolomé de las Casas salaketa ausarta.

Ramiro de Maeztu arabar-ingelesak bildu du maisuki imperialisten pentsakera (ikus *Defensa de la Hispanidad* liburua): "Konkistatzaileen eta enkomenderoen ondorengoek... parekorik izan ez

duen lorpena burutu zuten: indiar jende hura kristau zibilizaziora biltzea. Eta hau Ameriketara joan omen ginen urrearen eta zilarraren egarriak bultzaturik dioen esamesaren aurka. Gu hara predikatu nahiak eraman baikintuen".

Baina, amaitzeko, itzul gaitezen Mannen esanetara: "Europeans did no find a wilderness there... They made one". Esaera izugarria, esan nahi baita: "Europarrek ez zuten Ameriketako inolako basamorturik topatu... Hain zuzen ere, egin egin zuten berek".

Ameriketako genozidioak 80 bat milioi indioen sarraskia ekarri zuen. Mundu guztiko populazioa orduan 400 milioitan estimatzen delarik.

Zinez: gora Amerika amerikarra! ■

Benetan da ikaragarria Espainiak

lurralde haiek konkistatzeko

erabili zuen aitzakia merke eta

lotsagaldua, 'Indioen arimak salbatzera'

joan zirela errepikatzen baitzuten.

Artean, gupidarik gabe, indioen

urrea tonaka lapurtzen zutelarik